Sorginak

Aztiei deitzeko izenetako bat da hori. Beste izen bat *belagile* da. Kalteak zabaltzen dituzte soginek: uzta galtzea, errotak matxuratzea, burdinolak geldiaraztea, gaixotasunak, begizkoak, haurren heriotza misteriotsuak, arrantzaleak hondoratzea, eta abar.

Ba omen dira seinale batzuk norbait sorgina dela jakiteko: larruazalean batere orinik ez izatea, edo hatz lodia beste eskuko hatzekin eskumuturreraino tolestea, adibidez. Sorginak itxura anitz har ditzake bere lanetarako, batik bat animalienak (beti atalen bat falta ohi zaie: hanka, isatsa, burua...). Katu-itxura da ohikoena, zakurrarena noizik behin, eta ahari, idi eta txerri gisa ere ager daiteke.

Sorginak ez dira jo behar bi bider edo bikoiti aldiz, ezta haiei hiru bider deitu ere. Gainera, ez zaie zuzenean jo behar, baizik eta haien itzalei.
Kontuz ibili behar da, zeren, batzuetan, pertsona bat sorgin bihurtzen da eliza baten inguruan hiru bira emanda, edo gaizki bataiatuta, edo beste sorgin baten arropak jantzita, edo hura ukituta, edo haren orratzontzi bat onartuta, edo Etsairi musu bat emanda, edo hankaz gurutze eginda, esanez: «Porla se, zalpate, funte fa, funte fi, txiri, biri, ekatsu, ekatsu, amen».

La palabra Sorgin hace referencia a las mujeres magas. También se las conoce con el nombre de *belagile*.
Con sus maleficios y hechizos, las brujas pueden echar a perder una cosecha, averiar los molinos y parar las ferrerías; pueden provocar enfermedades, males de ojo, muertes misteriosas de niños e incluso hacer naufragar a los pesqueros.
Las señales más claras que delatan a las brujas son que no tienen ningún lunar en la piel y que doblan el dedo gordo hasta la muñeca. Aparte de eso, pueden adoptar otras formas, sobre todo animales. Lo más frecuente es que se conviertan en gato, pero a veces también se muestran como un perro, un buey, un cerdo o un carnero. Una cosa las delata, y es que siempre les falta algún miembro del cuerpo: un pie, la cola, la cabeza...
Si se quiere golpear a una bruja, nunca hay que hacerlo directamente, sino a su sombra. Y no se la puede golpear dos veces o en número par. Tampoco hay que llamarla tres veces. Igualmente hay que tener cuidado porque, a veces, algunas circunstancias pueden convertir a una persona en bruja. Por ejemplo, dar tres vueltas alrededor de una iglesia, estar mal bautizada, ponerse la ropa de otra bruja, tocarla... o formar una cruz con los pies pronunciando: «Porla se, zalpate, funte fa, funte fi, chiri, biri, tráela, tráela, amen».